

# itsasonde<sup>2.0</sup>

Herriko aldizkaria ((( 3. zk ))) otsaila-martxo 2009

## *Itsasondon zizlo kross proba arrakastatsua*

Aht-ren azkeneko Berriak  
Gure aitonen garaietako krisiak  
Ez galdu aurtengo kultur agenda







Urtebete honetan zuen eskuetan ibili nauzue ta ni pozik benetan, hainbeste berri klase eskainiaz bertan aurrera segi nahi det lanbide horretan apopillo izateko sukalde denetan.

Laguntza eskatzen det, bakarrik ez det nahi bidali albisteak edonork ta noiznahi, erretrato zaharrak berriak ere bai osatzen banauzue Itsasondo, lasai izango naiz itxuraz erantzuteko gai!

**Doinua: Antton eta Maria, edo (Batetikan korrozka)**



## agenda

# Kultura egutegia (Urtarrila-Martxoa)

### URTARRILAK 17, TALO FESTA TALO EGUNA.

Aurten ere gure talogileak jo ta ke ibiliko dira, herritarrei beraien talo goxoak jateko aukera emanez.

Azkenean urtarrilak 17 an izango da, aurten ere euro bateko kostua izango du taloak eta euro eta terdi edalontzia.

Diru hori aurreko urtean bezala elkartasuneko asmo batekin erabiliko da. Hortaz gain, gure jostunak urtean zehar egiten dituzten eskulan guztiak ikusteko aukera izango dugu, beraiek antolatzen duten erakusketan. Aurten ere haurrek hartuko dute parte, eskolan landutako proiektu ezberdinak aurkeztuz.

Hortaz gain Mari Carmen Mendizabalek, sukaldaritza tailerra antolatuko du haurrei begira, ea aurten ze prestatzen duten!

Beraz guztientzako aukera politak aurkezten dira, beraz 17-an frontoiean ikusten gara!

SENDABELAR IKASTAROAN IZEN EMATEKO EPE HASIERA  
OTSAILAK 4, SANTA AGEDA BEZPERA KOPLA KANTAK ETA ONDOREN AFARI MERIENDA.

PILATES IKASTAROAREN HASIERA  
OTSAILAK 14, IJITO EGUNA

Otsailak 21 an, Ihaunteriei hasiera emateko, IJITU EGUNA ospatzea da modu egokiena!

Urtetik urtera gehiago gara festa hontara animatzen garenok, abestiak, dantzak , eta suak halako gau majikora eramaten gaituzte.

Gure "patriarkak" sarrera emango dio idatzi baten bitartez, eta hortik aurrera, Zartagiak eta mailuak hartu eta Itsasondoko kaleetatik ibiliko gara hauek alaituz.

Barruak berotzeko, suaren inguruan elkartuko gara eta edan eta jenez bukaera emango diogu, urtean zehar hain gogotsu espero dugun gauari.!

IHAUTERI ETA IJITU EGUN ZORIONTSU BAT PASA DEZAZUELA!

OTSAILAK 20, ESKOLAKO IHAUTERI FESTA  
MARTXOAK 4, ESKULAN IKASTARO HASIERA.

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN BAZKARIA ETA ASTEAN ZEHAR HAINBAT EKITALDI.

MARTXOAN ZEHAR KORRIKA KULTURALEKO EKINTZAK  
APIRILAK 2, KORRIKA

# Nahitaezko desjabetza lapurreta da

**A**zkar eta gaizki. Informazioa ezkutatu eta azpiegituraren aldeko propaganda hutsa eginez ari dira burutzen AHTren desjabetzak, benetan tren azkarak izango dituen ondorioak zeintzuk izango diren esan gabe. Espainiako Sustapen Ministerioak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Ordizia-Itsasondo zatian AHT pasatuko litzateen lurak "Interes orokorraren" izenean edozein modutara expropiatu nahi ditu, abiadura azkarreko lanekin aurrera jarraitu ahal izateko, obrak Ordiziako Mariaratzetik harantzago zabaltzeko. Berdin zaie horretarako kaltetuen eskubideak urratu behar badituzte ere. Denak balio duela-ko euren ustez: lurjabeei txantaia eta presio egitea, kaltetuen oinarriko eskubideak urratzea,... Hasiera-hasieratik desjabetza prozesua modu lotsagarrian eraman dute aurrera, kaltetuei informazioa ezkutatu eta haiek indefentsio egoera larrian utziz, erabakitze aukerarik gabe, sinestara-zi nahi izan dieten bezala, diru piskaten truke ahoa itxita izan dezaten.

Azaroaren 11n Itsasondon lurak dituen lurjabe bat deitu dute Donostian Espainiako Gobernuak duen ordezkartzara, bere lurretatik AHT pasatuko dela-eta, desjabetza aktak sinatu ditzan. Lurjabea, bere borondatearen kontra, behin-betiko lurak kendu nahi dizkiote. Kaltetu honen jarrera oso argia da, ordea: bera AHTren aurka dago, bere esanetan lurra horrela txikitzen duen proiektu bat ezin delako ona izan; ez behintzat baserriarrentzat eta herritarrentzat. Lurjabe honek Akten Altxamendua Donostian beharrez bere lurretan egitea eskatu du, baina ikusteko dago ea bere eskaerari kaso eginez teknikoak egun horretan Itsasondora etorriko diren terrenoan bertan markatzera ala lurjabea Donostiako bulego panpox batean sinatzera derrigortuko duten zehaztasunik gabe, plano baten gainean.

Eskubidez, lurjabe horrek ez luke zertan egun horretan Donostira joan beharrik. Izan ere, Abiadura Handiko Trenaren ibilbideak eragingo lieken lurjabeek eskubidea dute desjabetze prozesuaren azkeneko urratsa den Akten Altxamendua euren lurretan egiteko eskatzeko, Donostian Espainiako Gobernuak duen ordezkartzara joan beharrik gabe. Era horretara, lurjabeak bere lurretan bertan ikusten du zein lur diren expropiatu nahi dizkietenak eta ez plano baten gainean. Kaltetuari berez dagokion eskubidea da. Berdin udaletxeena. Udaletxeek eskatu dezakete sinatze-ekitaldi hori herrietan bertan egitea eta horixe egin dute hasieratik, Itsasondoko eta Legorretako udalek. Hala ere, euren eskaerari entzungor eginez, Espainiako Sustapen



Ministerioko arduradunek AHTren Ordizia-Itsasondo zatiko akten altxamendua, zuzenean, Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzan egin nahi izan zuten uztailearen 9an. Hala ere, ez zen posible izan, deituta zeuden lurjabe batzuk eta

Legorretako eta Itsasondoko udaletxeetako ordezkari batzuk bertara azaldu ez zirelako. Espainiako Sustapen Ministerioak irailaren 11rako egin zuen Akten Altxamendurako bigarren deialdia, baina orduan ere bertan behera gelditu zen, herri mobilizazioaren ondorioz, jende ugari elkartu baizen egun horretan proiektuaren aurkako desadostasuna agertzeraz. Hainbat lagun lehenik Legorretako udaletxe barruan lotu ziren eta ondoren Itsasondoko udaletxeetako sarrerako eskaileretan gauza bera egin zuten, expropiatzaileei udaletxean sartzea oztopatuz. Sinatze-ekitaldia berriz ere egin gabe gelditu zen. Handik egun batzuetara Legorretako eta Itsasondoko udaletxeetako arduradunak Donostiara deitu zituzten beste behin ere aktak sinatu zituzten. Baina orduan ere sinatu gabe gelditu ziren aktak, lurjabeen eskubideak ez bermatzeagatik uko egin baizioten sinatzeari Itsasondo eta Legorretako Udalek.

Egoera larria da. Ordiziako Mariaratzetik AHTren lanak hasita daude eta tuneleko ahoa egina dute. Orain dela hilabete batzuk paraje ederra zenak orain zabortegia dirudi. Eta hau hasiera bakarrik da. Proiektu txikitzaile honekin, Ordizia eta Itsasondo arteko 2,8 km-ko tunel hori egiteko, 400.000 m<sup>3</sup> lur ateratuko dute. Horrekin lotuta, Goierriin bertan 5 harrobi ireki nahi dituzte.

Honen aurrean Itsasondoko Udalak behin eta berriz jakinarazi dio Espainiako Sustapen Ministerioari eta Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzari, Udalak azpiegitura honen aurka egoteko arrazoi asko izateaz gain (Itsasondon herri-kontsultak ezezko borobila eman zion AHTri), desjabetzak aurrera eramateko erabili duten prozesua ez dela garbia izan: lurjabeei beren oinarriko eskubideak zeintzuk diren ez dizkiete esplikatzen. Udal ordezkari gisa beren herrietako herritarrak diren lurjabeen oinarriko eskubideak bermatu nahi ditu Udalak, kontuan hartuta, zati honetako lurjabe batek gutxienez akten altxamendua bere







## Euskararen aldeko konpromiso berriak urte berrirako

Itsasondoko Udala UEMArekin elkarlanean, herrian euskara normalizatzeko urratsak ematen ari da aspalditik. Zehazki 2007an, herriko esparru guztiak kontuan hartuko ziren plana diseinatu zen lehenengoz Itsasondon. Izan ere, ordura arte euskararen aldeko ekintza solteak egiten baziren ere, ez zegoen herri osoa hartu, eta perspektiba orokor batetik euskara esparru guztietan normalizatzeko planik.

2006an, Itsasondo Udala eta UEMA lan horretan hasi ziren eta 2007rako taxutu zuten 3 urterako plan estrategikoa. Ordutik, urtero-urtero ahalik eta esparru gehienetarako ekintzak bideratzen dira udaletik (udaleko euskara erabilera plana eta administrazioa euskalduntzeko urratsak, euskalduntze-alfabetatzea, merkatariei euskara zerbitzua, ekimenak euskaraz antolatzeagatik diru-laguntzak, haur jaioberrientzako materiala e.a.)

2009an, ordea, konpromiso berriak hartuko ditu udalak. Orain arteko ildoari jarraituz, garrantzi berezia emango zaio udalean euskara normalizatzeko planari, izan ere, udalerrian euskara ohiko hizkuntza izan dadin urratsak eman behar badira, udalak berak eredu izan behar duela uste dugu. Horregatik, esfortzu berezia egingo dugu bide horretan. Itsasondoko herritarrek administrazioarekin duten harremana euskaraz izan dadin lanean jarraituko dugu.

Baina, 2009ko berrikuntzak bi izango dira: batetik, etorri-berrientzako egitasmoa, eta bestetik, hizkuntza eskubideen inguruan UEMA eta Behatokiak egindako hitzarmenaren lanketa.

UEMAk gureak bezain euskaldunak diren herrietara datozen kanpotarrentzako harrera protokolo bat landu eta zabaldu du bere herrietan. Kanpotik datozeinei, nora etorri diren, Euskal Herria zer den, guri hizkuntza zein

den, eta beraien beharretarako herrian dituzten zerbitzuen berri ematen duen diptikoa banatuko zaie. Diptiko hori bi hizkuntzatan banatuta emango zaie: euskaraz eta beraien hizkuntzan. Itsasondorako errumanieraz, gaztelez, frantsesez, ingelesez, arabieraz eta portugesez prestatu ditugu.

Horrekin batera, etorri-berriak herrian integratzeko berba-laguna moduko sare bat osatzeko saiakera ere egin nahi du udalak. Helburua, kanpotik datorrenari gurera integratzeko laguntza ematea izango da. Horretarako, nahi duten herritarrei parte hartzeko aukera zabalduko zaie.

Bigarren egitasmo berria hizkuntza eskubideen inguruko lanketarena izango da. UEMA eta behatokiak hitzarmena egin dute, udalerri euskaldunetan euskararen aurkako erasoak salatzekeo dinamikak martxan jartzeko. Udalean bertan euskaraz funtzionatzeko ditugun oztopok salatuko dira batetik, baina bestetik Itsasondoarrok ikusten dituzuen hizkuntza eskubideen urraketak salatzekeo aukera emango da, herrian jarriko ditugun postontzietan. Urraketez gain, aukera izango da euskararen mesedetan ikusten dugun edozer txalotzeko ere. Horretarako, postontziak dauden lekuetan mota ezberdineko fitxak jarriko dira. Egitasmo honen helburua, nolabait herritarrok ditugun hizkuntza eskubideen inguruan sentsibilizatzea izango da.

Urratsez urrats ari gara Itsasondoko berezko hizkuntzak, euskaraz, merezi duen lekua esparru guztietara zabaltzen. Dena dela euskararen alde guztion konpromisoa beharrezkoa da. Asko dugu oraindik egiteko. ■





mendukil

## Herri eskola ekintza: mendukilo kobetara irteera

Urriaren 26an, Itsasondoko guraso eta haurrak bildu ginen; 42 lagun orotara eta Nafarroako Astitz-en kokatuta dauden Mendukiloko kobetara abiatu ginen.

Mendukiloko kobak Aralarko erraiak direla esaten da eta 2005. urterarte espeleologoentzat bakarrik ikusgai ziren lei-zeak orain bisitari guztientzat daude irekita.

Behin Astitzera iritsi ginenean (Lekunberri ondoan) bertako interpretazio zentroan inguruneari buruzko DVD bat ikusi genuen eta ondoren bertako arduradunek lagundurik kobetan zehar ordubeteko ibilbidea egin genuen. Benetan ikusgarria ikusteko zegoena.

Hauek denak eginik gosea ere ordurako ageri zen eta Astitz-etik gertu dagoen Iribas herriko Martiko jatetxean bapo bazkaltzeko aukera izan genuen. Laburbilduz, egun ederra pasa genuela bertara joan ginenok.

Bertan ateratako argazkiak hemen dituzue, gure hurrengo ibileren berri izango duzute bitartean jaso agur bat Itsasondoko eskolako guraso eta haurren izenean. ■

gaztain

## Gaztain bilketa eta gaztain jana

Urtero bezala udazkenean, guraso elkarteak, irteera bat prestatu zuten gaztain bilketa egiteko.

Berrogehi bat guraso eta haur elkartu ginen, eguraldia eguzkitsua ez bazen ere, Urkiara joan eta menditik buelta bat emateko aukera izan genuen.

Haurrak eta gurasoek primera pasa zuten hortaz gain udazkenak aurkezten digun kolore nahasketaz goxatzeko aukera ere izan genuen.

Nahiko gaztain bildu eta gero, "Gaztain Jana" noiz egingo genuen erabaki behar zen, azkenenean azaroak 14 ean izan zen.

Aurten aurpegi berriak topatu genituen, eta hori oso pozgarria da, azken finean elkar ezagutzeak eta memenuak konpartitzea da garrantzitsuena.

Beraz animatu zaitzete hurrengo urtean ere gurekin mendi buelta bat ematen eta ondoren sutondoan gaztain goxo eta bero batzuk jaten! ■



## Gazte teknikaria

2008ko apiriletik abian da Itsasondon Gazteri Arloko Plana. Orain arte plan honen haserako diseinuarekin jardun da eta etorkizunean aurrera eramango diren egitasmo berrien planifikazioa egiten ari da orain. Azken hiru hilabetetan egindako jardueren artean aipagarri azaroak 19an egindako herri aurkezpena. Bertan azaldu eta eztabaidatutako gaiak anitzak izan ziren: orain arte egindakoaren aurkezpena, Itsasondoko haur, nerabe eta gazteen egungo errealitatea, herrian dauden ekipamen-

duen azterketa eta gazteleku proiektua, beste gai batzuen artean.

Honez gain, nerabeekin, hau da, 12-17 urte bitarteko herritarrekin bi lan-saioa burutu dira gazteleku proiektuaren inguruan aurkezpena eginez eta honetan agertzen diren hainbat puntuen gainean eztabaidatuz.

Aurrerantzean nerabeekin lanean jarraitzeko asmoa dago eta pixkanaka-pixkanaka beste adin-taldeekin ere jardungo da, hau da, haur eta gazteekin hain zuzen ere. ■





# Krisia


**G**aur egun modan-modan dagoen itza. Errialdeak krisian, banketxeak krisian, langintzak krisian eta zein ez krisian?

Gu, urte asko bizkarrean dauzkagunok, krisi edo larrialdi askotxo igaro bear izan ditugu, langillea edo beargillea (itzak esaten duen bezala) geienetan bearrean izan baita..

Lenengo Iparramerikako burrunbarak entzun ziran. Banketxe batzuei laguntzen ez bazitzaien itxi bearrean gertatuko zirela, bada ipotekaz edo baituraz aurrertutako diruk ezin zituztela eskuratu eta orrela milloika jendek, ondo kostata aurrertutako diruk, galdu bearrean izango zirela. Bankuk ezingo luketenez dirurik aurrerratu, industriak ezingo zutela jarraitu lanean eta onek langabezia aundia sortuko lukeela. Orrela munduko erri indartsuenak gelditu bearren aurkituko litza-tekeela.

Guregana ere iritsi zaigu egoera ori. Oraindik okerrena ez emen da etorri eta datoren urte erdira arte gutxienez, okertzen joango emen da. Azken berriak berriz, bi urte iraungo duela esaten dute eta dagoeneko asi dira langillek bidaltzen eta neurrik estutzen; lantokiak, batez ere eraikuntzak, ixten, eta abar. Krisi au zuzentzeko asi dira gure agntariak laguntzak eskeintzen banketxe edo nagusi jendeari. Zoritxarrez, langillek aurrera ateratzeko ez da ikusten laguntzarik eta egoera au eak ekarri baluteke bezela ziur egon, beraien kontura joango dala konponketa. Gaurko dotriña berrie, dirue nola artu ala gastatu bear dala eta orrekin ekonomie "martxan" jartzen dala. Lenago ere ez ote du, orrek beak egoera au ekartzen lagundu?

Lasai egoterik ez badaukagu ere, denboran poderioz, dana konpontzen da. Iparramerikan 1929 urtean izugarrizko krisia sortu zan eta, oraingoan bezela. Bereala iritxi zitzaigun guri ere. Esate baterako, Beasaingo fabrikan, 1931tik 1933arte, 600 lagun etxera bidali zituzten eta 1935en berriz sartzen asi ziren. Errin, arbel lanetan, astean iru egunetan lan egiten zuten aldiak ezagutu ditugu eta kobratu ere iru egun. Arbel lantegiak itxi aurretik urte gogorrak jasan bear izan zituzten bertako langilleak. Gerra ondorena ere benetako krisia izantzan lan faltarik ez, baño okerragoa, jana falta. Gogoan degu janari urri eta txarra ematen zigutela ogi beltzetik asi ta.





Ala ta guztiz, non edo an izango zan zer egiña. Baratzan, peontzan, baserrietan eta abar. Diru asko etzan lortuko eginkizun oietatik, bañan jana etxerako aterako ain bai. Noski, gaurko gastatu bearrik ez zan ezagutzen.

Gure ikasketak ez dira beñere ekonomi jakintzak izan, bañan etxeko arduratzaz, gure etxekoandrei irabaztea ez da erreza izango. Oiek bezela jokatu izan balute gure agintari eta diru jebeak, lapur eta lotsaga-beak, ziur egon, etzala orrelako krisiik sortuko.


Nik uste, gaur egun, okarren arkitzen diranak gazteak direla: lehenengo lantokiaren billa dabiltzanak eta etxeko baitura ordaintzen ari direnak. Orain arte, auei, banketxe edo kutxek, zurikeriz eskeiñi dizkieten "laguntzak" direla medio. Gero, langilleak, etxera bidali edo bidaliko dituztenak soldatak urritzen ere asi dira ta. Azkenik, gu jubilatuko, orain arte urtero gutxiegi igotzen badigute orain aitzaki ederra dute ez igotzeko. Askotan agindutako, gutxieneko pentsioen igoera, geienak emakume alargunak, onartu dutela esan arren, ez dute bakar batzuenak besterik igo eta oiena ere gutxi.



Bukatzeko eta esan io dan bezala, biotzak jasotzeko, gure errin gertatua. Krisia izenik ez zekien eriko etxekoandre on puska batek eta gaur egun moduko egoera aurrera zuela, bere buruan zuena onela azaltzen zuen: "Gu gaizki ibili bear badiñagu geienak okerrago ibili bearko ditun bada, nik beintzat ogeitamar duro aurreratuta bazeuzkenat eta".

Orrela bada, ez etsi. Biar ere eguna zabalduko du eta. ■

### Jubilatu bat





# Aste buruetan badago Itsasondon zer eginik!

**H**urrengo aleetan Itsasondoko inguruak ezagutzeko aukera emango dizuegu, 6 ibilbide zoragarri dezubritzeko proposame honen bidez. 6 ibilbide, sei paisaia, sei abentura eta mila argazki.

Urteko lehenengo ale honetan ibilbide hauen xehetasunak eskeiniko dizkizuegu eta martxoan zuekin izango gara berriz ere itsasondoko errota ezagutzeko aukera emango duen ibilbidea aurkezteko.



- Itsasondo > Berostegi > Lasarte > Lizardi > (Errota ikusi) > Urkia > Iraola > Itsasondo. Iraupena: 2 ordu inguru.
- Itsasondo > Malkorre > Urkia > Leizia > Murumendi > Pagorri (oreinak eta basauntzak ikusi) > itzulera: Larrazkanda > Idoiaga > Saro > Oteizabal > Ordizia < Itsasondo. iraupena: 5-6 ordu.
- Itsasondo > Iraola > Idoiaga > Larrazkanda > Leizia > Usurbe > Beasaimendi (lau baserriak) > Beasain > Itsasondo (nahi bada trenez etorri). Iraupena: 5-6 ordu.
- Itsasondo > Berostegi > Lasarte > Zumizti > Aldaba > Ikaztegieta > Legorreta > Itsasondo (nahi bada trenez) Iraupena: 5-6 ordu.
- Itsasondo > Arama > Altzaga > Alzagarate > Gaintza > Zaldibia > Ordizia > Itsasondo. Iraupena: 5 ordu inguru.
- Itsasondo > Arama > Altzaga > Alzagarate > Baliarrain (pantanoa ikusi) > Ikaztegieta > Itsasondo (nahi bada trenez). Iraupena: 5-6 ordu. ■



## Azaroak 27, Emakumeen Biolentziaren Kontrako Eguna



**A**urten Berdintasun teknikariarekin elkar lanean aritu dira emakume taldea, kulturako zinegotzia Rosi eta alkatea.

Berdintasuneko teknikaria, Alaitz, beste agente hauekin ekitaldi ezberdinak antolatu zituen.

Azaroak 21-an, zahar egotzean hitzaldi txiki bat eman zuen, emakume hauen egoera salatuz eta datu esanguratsu eta ikaragarriak aurkeztuz. Gehiengoak "Emakunde" erakundetik lortuak.

Bertan 20 bat pertona bildu ginen, aurkezpena eta gero Alaitzi zenbait galdera egiteko aukera izan genuen.

Elkartasunez enparantzan, kandelak piztu eta emakume hauen oroimenez ixilune bat eskeini genien.

Esan beharra dago aste bete lehenago ikastetxeko aretoan "Te doy mis ojos" filmea aurkeztu suela Alaitzek, eta gaia tratu txarren inguruan zela.

Horrela jarraitzea espero dugu, gure ardura baita ere errealitate ezberdinetaz ohartzea, egoera horiek aldatzeko aukera izateko.

Ongi etorri Alaitz eta mila esker jarritako ilusio eta gogorengatik!



### Kantu afaria

**A**urten ere Hogehitahamar bat lagun bildu ginen elkarteetan, aurreko urtean bezala Iparraldeko musikari gazteak izan genituen bere kitarra eta biolinarekin gaua alaitzen.

Abesteaz gain dantza batzuk ere egon ziren, hauetako gazte batek animatuta.

Kantu afaria, urtean behin edo bitan egiten da gehienez, askotan kultur astearekin lotu izan da udazkenean, oraingo honetan beste ekitaldi batzuk zirela eta azaroak 28 an izan da.

Kantu afaritako ezaugarritako bat, beti giro polita sortzen dela da, eta honek ere badu bere adierazpena, afari goxo goxoa lker eta bere laguntzaileen eskutik (patatak txorizoarekin eta bakalaua), teknologi berrien erabilpena Maiteri esker (pantalla batetik abestiak kantatzeko aukera), eta Rosiren koordinaketa dena primeran atera dadin.

Beraz mila esker antolatzaleei eta baita ere joan zireten guztioi, "kantu afaria" gehiagotan izatea eskatu



### Taldeen bazkaria

**F**estetako "ajea" pasa eta gero eta bertan gertatutako "berezitasun" guztiak elkar kontatzeko Taldeen bazkaria da aukera aproposena.

Oraingo honetan ere 64. lagun elkartu ginen. Elkartea lepo zegoen

Ohitura ez galtzeko arkume errea eta entsalada jan zen "Ijitu besoa" postre bezala primerazkoa jjanaria udaletxeak ordaindua, edaria bakoitzaren kontu.

Garrantzitsua da aipatzea hurrengo urtera begira, taldeen bazkarira joango direla Olimpiadetan parte hartzen duten taldeak, neurri hau hartu da parte hartzea handiago bat bultzatzeko festetan.

Giro polita sortu zen eta garrantzitsua adin ezberdinetako jendea elkartu ginen; haur, gazte eta heldu... horrela jarraitu jeta hurrengo urterarte!



## Ziklo-krosa

**E**guraldi onak lagundurik inoiz baino jende gehiago gerturatu zen itsasondoko IX. Ziklo kross probara. Bertaratutakoek hainbat probez gozatu ahal izan zuten; hona hemen proben argazki eta sailkapenak:

### Elite eta 23 azpikoak

1. Javier Ruiz de Larrinaga (Spiuk-Urteaga) 56:53
2. José Antonio Hermida (Mérida) a 0:44
3. Sergio Mantecón (Cemelorca) a 1:22
4. Héctor Guerra (Montecerrao) a 1:47
5. Santiago Armero (Catalunya) a 2:17

### Emakumezkoak

1. Rosa M<sup>a</sup> Bravo (Castilla y León) 42:15
2. Isabel Castro (Aquagest) a 1:29
3. Aida Nuño (Montecerrao) a 4:37

### Junior

1. Jon Gómez (La Bicicleta) 38:26
2. Paulo González (Expert-Aquagest) a 0:11
4. Jon Ander Insausti (Caja Rural) a 0:38
6. Mikel Elorza (Lan Mobel) a 1:27

### ESPAINIAKO KOPAKO SAILKAPEN NAGUSIA

Javier Ruiz de Larrinaga (Spiuk-Urteaga) Elite  
 David Lozano (Madrid) 23 azpikoak  
 Ismael Barba (Madrid) Junior  
 Mikel Latorre (Luyando-Gancedo) kadeteak  
 Rocío Gamonal (Asturias) Elite emakumezkoak  
 Tania Calvo (Electro Alavesa) Junior emakumezkoak  
 Eider Merino (Hotel Modus Vivendi) Kadete emakumezkoak





## Liburuaren txokoa

Atal honen asmoa, Itsasondoko Udal Liburutegia zuengana gerturatzea da. Honela Itsasondo 2.0 aldizkarian liburutegian jasotzen ditugun hainbat liburu eta nobedadeen berri emateko asmoa daukagu.

Gure nahia litzateke, zuek irakurle moduan ezagutzen dituzuen liburuen berri eman eta gomendatzea. Helburua herritarrak liburutegira eta liburuetara gerturatzea da; ea denon artean irakurzaletasuna bultzatzea lortzen dugun.

### BULARRETIK MINTZORA; KANTAK, POEMAK, IPUINAK



Formatu txikiko liburu-ruxka dugu. Batez ere haur txikiak dituzten gurasoei bideratuta dago liburua; izan ere bertan haurrentzako betiko esamolde eta kantak aurkituko ditugu, bai liburuan zein CD batez lagundurik. Haurrei istoriotxoak kontatu, betiko haur kantak abestu eta haurtzaroa gogorazi nahi duen edonorentzat gomendatzen dugu.

### ONDARROAKO PIRATEN ABENTURA BERRIAK (Ana Urkiza)



10 urtetik aurrerako haurrentzako liburua dugu. Andonik eta bere Ondarroako lagunek udara honetan izugarrizko abenturak pasako dituzte, nork dio dagoneko ez direla piratak existitzen?

### DRAGOIEN ORROA (Fernando Morillo)



Gaztetxoentzako Fernando Morillo idazle arrakastatsuak idatzirik misterio eta abenturazko liburua dugu honako hau. Gaua mendian akanpatuta pasatzeko asmoa du Eskoriatzako gazte-koadrila batek, baina neska-mutil horiek ezin igarri zer ezkututzen den lurpean....



### IHES BETEA (Anjel Lertxundi)



Warner, gazte hitlerzale baten ibilerak kontatzen dizkigu. Warner European zehar ihes egitera behartuta egongo da. Lertxundik, hausnarketa, ekintza, suspensea eta jakinmina elkar txandakatzen ditu. Eleberri honek ez du inor hotz utziko; bere orrialdeetan barrena pertsonai gogogarriak eta historia hungigarriak biltzen joango dira.

### AMAREN ESKUAK (Karmele Jaio)



Amaren historia ez-kutuak jakingo ditu Nereak erietxean, eta horren haritik ohartuko da zenbateraino izan daitezkeen ezezagunak gure aldamenean ditugunak, eta, aldi berean, zenbateraino izan litezkeen berdinak belaunaldi biren arazo eta kezkek, nahiz eta garai eta bizimoduak asko aldatu. Bizinahiaren aldeko aldarrikapena da eleberri eder eta hungigarri hau.

### ELURRA (Orhan Pamuk)



Orhan Pamuk Turkiako idazlerik ospetsuena eta 2006.eko literatura Nobel sariaren irabazlea dugu eta orain "elurra" nobelaz euskaraz gozatzeko aukera dugu. Alemaniako Kars hiria elur-erauntsiak isolaturik geratuko da, bertan gizarteko tentsio guztiak agerian geratuko direlarik. Nobela hau aldi berean thriller politiko, maitasun istorio eta boterearen gaineko gogoeta malenkoniatsua dugu; irakurlea hausnartzera behartuko duena.

### LA CHICA QUE SOÑABA CON UNA CERILLA Y UN BIDON DE GASOLINA (Larson Stieg)



Azken aldiko arrakasta entzutetsuena dugu, "Los hombres que no amaban a las mujeres" liburuaren ondorengoa. Lisbethek Estokolmo uztea erabakitzen du eta Mikael bikotekideari inongo azalpenik eman gabe desagertzen da; Lisbeth protagonistaren ibilerak jarraituko ditugu; akzioz beteriko nobela zirrara sortzen duten horietakoa dugu Larson-en azken nobela hau.

### EL CHINO (Henning Mankell)



Beldur eta suspensezko liburuen autore ezaguna dugu Henning Mankell Suediarra. Thriller honen argudioa Hesjovallen izeneko herrixka Suediarrean hemeretzi lagunen hilketara odoltsu eta ulergaitza gertatuko da. Hilketaren ikerketak beste hainbat gertakariei hari eta bide emango die. Kritikari askok 2008an idatzirikoa liburuak hoberena bezala izendatu dute honako hau.


### COMETAS EN EL CIELO (Khaled Hosseini)



Khaled Hosseini, talibanak Afganistanera sartu ondoren Estatu Batuetara alde egin-dako mediku musumandarra da eta honako hau bere lehen nobela da. 1975. urte inguruko Afganistanen dago girotuta liburua eta Amir eta Hassan izeneko bi haur afganiarren bizitza kontatzen du. Hainbat unetan kontakizun gogor eta odoltsuak izan arren haurren samurtasunak eta xalotasunak liburu hau hungigarri bihurtzen du.



## Lehiaketa mundiala



Pena haundiz agertu nahi dugu azkeneko alean ez zuela inork argazkian akatsik aurkitu, eta beraz berriro ere aukera ematen dizuegu lanean asteko.

Gogoratzen dizuegu afari mundial bat dagoela jokoan eta honakoan ere asmatzen duenak bapo bapo jateko aukera izango duela.

Anima zaitetze denak!



## Errezeta

### EUSKAL PASTELA

40 bat minutu behar dira 6 lagunentzako euskal pastela prestatzeko, eta beste 30 minutuz labean utzi behar da, 200°C-tan.

#### Osagaiak:

200 g gurin  
200 g azukre  
5 g gatz  
4 gorringo  
2 arrautza oso  
400 g irin  
legamia koilaratxo bat.



#### Elaborazioa:

Gurina, azukrea eta gatza ondo nahasi. Nahasketa ondo landuta dagoenean, gainerako osagaiak erantsi, eta oreala landu. Ondoren, leku fresko batean, oihal garbi batekin estalita pausatzen utzi, irin pixka batekin -itsats ez dadin-

Bien bitartean, pastel krema egingo dugu. Osagaiak: esne litro laurden bat, arrautza bat, gorringo bat, 60 g irin, 65 g azukre, 2 ron koilaratxo, eta banilla leka erdi bat. Guztia beroan ondo nahasi, eta hozten utzi.

Oreala ondo luzatu, xafla mehe bat lortu arte. Moldea gurin pixka batekin igurtzi, eta irin pixka bat erantsi, bertan botako dugun oreala itsatsita gera ez dadin, eta oreala molde horretan bertan zabaldu. Gainean krema bota, jada hotza dagoela (zentimetro erdiko lodiera), eta orearen beste geruza bat jarri gainean. Pintzel baten laguntzaz, arrautza irabiatua igurtzi, bukaeran distira polit bat izateko, eta labean sartu, 200°C-tan, 30 bat minutuz.

## Komikia



**!**  
GOGORARAZTEN  
DIZUEGU HURREN -  
GO ALEA APIRILE

